

UDA IKASTAROK
CURSOS DE VERANO

EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA, EGOERA ETA NORABIDEA,
DATUEN ARGITAN (I)

EUSKARAREN ERABILERA. DIAGNOSTIKO BAT DATUEN ARGITAN



Iñaki Iurrebaso Biteri
Donostia, 2012-07-17

0. SARRERA

- Euskararen erabilera aztertu nahi dugu.
- Bi operazio estatistiko nagusi ditugu (EHKN eta ISL).
 - Biek ematen digute oso informazio baliagarria erabilerari buruz.
 - Bietan denbora-serie luze samarrak izaten hasi gara (bi hamarkadako datuak).
- ...Baina oztopo handi bat dugu: **datuak ez dira zuzenean alderagarriak**. Homogeneizatze-lan bat egin beharra dago datu batzuk eta besteak alderatu ahal izateko.
- Gaurko gure helburua
 - homogeneizatze-lan hori egiteko proposamena landu,
 - datuak berriz kalkulatu
 - eta sintesi-ikuspegi bat eskaintzea.

1. METODOAZ

EUSKARAREN EGOERA SOZIOLINGUISTIKOARI BURUZKO BI OPERAZIO ESTATISTIKO NAGUSI: EHKN ETA ISL


	EHKN	ISL
METODOA	Behaketa	Inkesta
LAGINAREN NEURRIA	Lagin ikaragarri handia (154.277 elkarrizketa eta 363.616 hiztun, 2011. urtean).	Lagin handia (7.800 inkesta).
EMAITZEN FIDAGARRITASUNA	Behaketan oinarritutako datu-bilketa izanik, ez du subjektuen hautemate okerrak edo "itxura eman nahiak" eragindako alboraketarik. Oso fidagarria da.	Erabilera aitortua aztertzen du beti (inkesta batean subjektuek emandako erantzunetan oinarrituta). Ikertutako errealitatearen eta jasotako datuen arteko desoreka (alboraketa) zenbatekoa den ez dakigu zehaztasunez.
IKERGAIA	Kale-erabilera neurtzen du.	Norberak solaskide mota ugariarekin egiten duen erabilera neurtzen du. 2011ko ikerketan: FAMILIAN •Etxean, Bikotekidearekin, Seme-alabekin, Amarekin, Aitarekin, Neba-arrebekin, Aitona-amonekin FAMILIATIK KANPO •Lagunekin, Auzokoekin, Lankideekin, Ikaskideekin, Saltzaileekin, Bankukoekin, Osasun zerbitzuetan, Udal zerbitzuetan, Administrazio Publikoan, Gizarte sareetan
ALDAGAIEN ARABERAKO AZTERKETAK EGITEKO AUKERA	Mugatua	Oso handia

1. METODOAZ

EHKN ETA ISL: EZBERDINTASUN NAGUSIAK ETA HOMOGENEIZATZEKO METODOZKO PROPOSAMENAK


	EHKN	ISL	Nola homogeneizatu
Unibertsoa:	Herritar guztiak	16 urtetik gorakoak	EHKN birkalkulatu, haurrak kanpo utzita
Laginaren barne-oreka	Kalean gehiago ibiltzen diren herritarrek pisu handiagoa dute laginean (zehazki, haur eta gazte gehiago)	Orekatua da sexuaren eta adinaren arabera	EHKNko emaitzan haztatu, adina kontuan hartuta
Informazioa aurkezteko modua	Tasa (%)	Kategoriatan	ISLko emaitzetatik abiatuta, erabilertasak kalkulatu ditugu
Ikergaia: erabilera espazioan / solaskidearen arabera	Kalean egiten den erabilera neurtzen du (solaskidea edozein dela ere)	Solaskideen arabera erabilera neurtzen du (hainbat kasutan, hori espazio bati lotzen zaio, baina ez beti)	Bi iturrietako emaitzak alderatu ahal izateko, "eremu informaletako erabilera" sortuko dugu ISLko datuekin, etxeko erabileraren eta lagun artekoaren batez bestekoa eginda
Teknika	Behaketa. Datu behatuak	Inkesta. Datu aitortuak	Alboraketa-tasa kalkulatu (EHKNko erabilera eta ISLko "eremu informaletako erabilera" harremanetan jarrita)
Hasierako datak ez datoz guztiz bat	1989, 1993, 1997	1991, 1996	EHKNko 1991ko datua "aterako" dugu (1989 eta 1993ko emaitzen batez bestekoarekin), eta 1997ko datua 1996koa balitz bezala erabiliko dugu.

2. EHKN LANTZEN




Nagusien (+15) kale-erabilera haztatua: +15 herritar guztiak kalean maila berean ibiliko balira, entzungo genukeen euskararen %a.

2. EHKN LANTZEN



2. EHKN LANTZEN




3. ISL LANTZEN: ERABILERA-TASAK

ISLko erabilerari buruzko aldagai bakoitzaren emaitzak hartu, eta aldagaia laburtuko duen tasa bat kalkulatu dugu. Aldagai baten tasa (adibidez, “etxeko erabilera”) honela kalkulatu dugu:

		ISL emaitzak	Euskarazko erabilera (ehunekotan) emandako erantzunaren arabera	
		(A)	(B)	=A*B
Zein hizkuntzatan hitz egiten dute etxean?	Beti euskaraz	202.116		
		8,7	%100	8,7
	Euskaraz erdaraz baino gehiago	52.706		
		2,3	%75	1,7
	Euskaraz erdaraz beste	73.537		
		3,2	%50	1,6
	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	133.192		
		5,8	%25	1,4
	Beti erdaraz	1.853.397		
		80,1	%0	0,0
	Etxeko erabilera aitortuaren tasa (%)			13,5


Erabilera aitortuaren tasak zera esan nahiko luke: inkestan jasotako erantzunak errealitatearen isla zuzen-zuzena izango balira (alboraketarik ez balego), zenbat euskara entzungo litzatekeen (kasu honetan) Euskal Herriko etxeetan (ehunekotan adierazita). Erantzuna: %13,5

3. ISL LANTZEN




3. ISL LANTZEN


Erabilera aitortua familitik kanpo. Euskal Herria, 2011 (Iturria: ISL)



4. EUSKARA HEDABIDEEN KONTSUMOAN



5. EUSKARAREN ERABILERA, 2011



5. EUSKARAREN ERABILERA, 2011

PARENTESI ARTEAN: BEHATUAREN ETA AITORTUAREN ARTEKO ALBORAKETAREN KALKULUA (BEHIN BEHINEKO HURBILPEN BAT)

ISLtik:


- Etxeko erabilera-tasa: %13,5
- Lagun arteko erabilera-tasa: %16,2
 - Bien batez bestekoa (*erabilera informal aitortuaren tasa*): %14,8

EHKNtik: kale-erabilera haztatua (+15): %11,5


Alboraketaren kalkulua: $14,8 / 11,5 = 1,291$

...Bestela esanda: **aitortua baino %22,6 gutxiago da behatua**


5. EUSKARAREN ERABILERA, 2011




6. EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA, 1991-2011




6. EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA, 1991-2011



6. EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA, 1991-2011




6. EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA, 1991-2011




7. ERABILERA, LURRALDE-EREMUEN


ARABERA, 2011




8. ERABILERAREN BILAKAERA, LURRALDE- EREMUEN ARABERA




8. ERABILERAREN BILAKAERA, LURRALDE-EREMUEN ARABERA



8. ERABILERAREN BILAKAERA, LURRALDE- EREMUEN ARABERA




8. ERABILERAREN BILAKAERA, LURRALDE-EREMUEN ARABERA




8. ERABILERAREN BILAKAERA, LURRALDE-EREMUEN ARABERA


KALE-ERABILERA herrialdeka (herritar guztiak -haurrak barne-,
adinaren arabera haztatuta). Euskal Herria, 1989-2011




9. ERABILERA, ADINAREN ARABERA, 2011




10. ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA




10. ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA




10. ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA




10. ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA



10. ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA



10. ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA



11. ONDORIOAK

EUSKARAREN ERABILERA EUSKAL HERRIAN, 2011

- Euskararen kale-erabilera haztatua, 2011. urtean (+15): %11,5 (erabileraren batez besteko orokorra ez da urruti ibiliko).
 - Batez besteko horren azpitik egiten da euskaraz:
 - Etxean
 - Hedabideen kontsumoan
 - Batez bestekoaren gainetik:
 - Irakaskuntzan
 - Lankideekin
 - Bestelako eremu formaletan

11. ONDORIOAK

EUSKARAREN ERABILERA EUSKAL HERRIAN, 1991-2011

- Euskal Herria bere osotasunean hartuta, ez da joera bakarra antzematen 1991-2011 tarterako. Horrela:
- Erabilera aitortua igo egin da, asko igo ere, eremu formalean.
 - Igo egin da, zalantzarik gabe, irakaskuntzan (ez dugu datu zehatzik).
 - Lankideekin 1991ko %11,2tik 2011ko %17,6ra (%58,1eko hazkunde erlatiboa).
 - Igo egin da bestelako eremu formalean. Adibidez, udaletxean, banketxean eta osasun zerbitzuetan, %9,9tik %15,6ra igo da (%56,6ko hazkunde erlatiboa).
- Igo egin da lagunartean. 1991ko %12,8tik 2011ko %16,2ra. (%26,6ko hazkunde erlatiboa) eta kalean 1989ko %10,6tik 2011ko %12,4ra (%16,8ko hazkunde erlatiboa).
- Ez da igo (eta agian jaitsi ere egin da):
 - Etxean: %13,9 eta %13,5 (-%3,3)
 - Hedabideen kontsumoan (ez dugu datu zehatzik).
- Gogoratu orain arteko kopuru gehienak erabilera aitortuari dagozkiola eta erabilera erreala horren azpitik egongo dela.

11. ONDORIOAK

BILAKAERAK, ORDEA, EZ DIRA LINEALAK IZAN. OROKORREAN: HAZKUNDE POSITIBOAGOETATIK EZ HAIN POSITIBOETARA

Batez beste urtero izandako bilakaera, epealdika.
Euskal Herria, 1991-2011

	1991-1996	1996-2006	2006-2011
LANKIDEEKIN (Erab. Aitortua ISL)	0,58	0,20	0,31
HAINBAT EREMU FORMALETAN (udaletxean-banketxean-osasun zerbitzuetan)	0,78	0,07	0,21
LAGUNEKIN (Erab. Aitortua ISL)	0,55	0,04	0,04
KALE-ERABILERA HAZTATUA (+15)	0,30	0,03	-0,08
ETXEAN (Erab. Aitortua ISL)	0,24	-0,05	-0,23

0,5 baino handiagoa

0,2 eta 0,5 artean

0tik 0,2ra

-0,2tik 0ra

-0,2 eta -0,5 artean

-0,5 baino txikiagoa

UDA IKASTARAK
CURSOS DE VERANO

11. ONDORIOAK

EREMUKAKO IKUSPEGIA

ERABILERA, 2011, hurrenkera:

EAEn nabarmen gehiago erabiltzen da euskara (Gipuzkoaren eraginez, batik bat). Ondoren dator IEH eta, azkenik, Nafarroa Garaia.

BILAKAERA 1991-2001:

- Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, erabilerak atzeraka egin du nabarmen 20 urteotan, aztertutako alor guztietan. Galera handiak. Gazteenen artean berreskurapen zantzuak ageri dira, baina oraindik ez diete ia eragiten emaitza orokorreari.
- EAEn: bilakaera positiboa 1991-2011 tartean. Hazkunde handia eremu formalean, ez hainbeste informalean. Hazkunde-erritmoa, bestalde, moteltzen joan da. Kale-erabilerari erreparatuz, kezkatzeko moduko joerak (azken 5 urteotan bereziki) Bizkaian eta Araban.
- Nafarroan aurrera egin du eremu formaletan, eta atzera etxean zein kalean.

11. ONDORIOAK

ADINAREN ARABERAKO IKUSPEGIA

- Gaur egun, zenbat eta gazteago, orduan eta euskararen erabilera handiagoa.
- Joera argia: zaharrek geroz eta euskara gutxiago erabiltzen dute eta belaunaldi berriek geroz eta gehiago.
- Arlo informaletan, ordea, hazkundera eten egin da gazteengan (eta haurrengan).

11. ONDORIOAK

BALORAZIO BAT METODOAREN IKUSPEGITIK

- **Benetan aipagarria:** EHKN-ISL koherentzia handia bilakaeretan eta hurrenkeretan.
- Horrek **bi eragiketa estatistikoen sendotasuna** azpimarratzen digu.
- Bi eragiketotatik ekarritako **datuak uztartuz eta elkarrekin aztertuz**, hobeto ezagutu dezakegu euskararen egoera eta bilakaera, iturri bakarrera mugatuz baino. Angelu ezberdinetatik egindako argazkiek aberastu egiten dute ezagutza.
- Interesgarria litzateke, **beste iturri batzuetatik** ere edatea (zentsuak, CIES, irakaskuntzaren estatistikak...) geroz eta argazki osoago, sistematikoago eta zehatzagoa izateko.
- Azken batean, ezinbestekoa da euskararen egoerari buruzko **ikerketarako jokozei komuna** sortzea, alderagarritasuna oinarri.

UDA IKASTAROK
CURSOS DE VERANO

EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA, EGOERA ETA NORABIDEA,
DATUEN ARGITAN (I)

EUSKARAREN ERABILERA. DIAGNOSTIKO BAT DATUEN ARGITAN



Iñaki Iurrebaso Biteri
Donostia, 2012-07-17